

**ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.** Lehiaketa horrekin esleitu gura den kontratuaren helburu da ere enplegua sustatzea langabetuen edo bazterkerian erortzeko arriskuan dauden artean, hori guztiori, lan baldintza duinak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea bermatuko duten metodo eta praktiken bitartez.

## **I. KAPITULUA.- LEHIAKETAREN XEDEA.**

**1. artikulua.-** Baldintza agiri hau Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) esleitzeko lehiaketako dokumentazioaren zati bat da. Lehiaketa horren helburu da ere enplegua sustatzea langabetuen edo bazterkerian erortzeko arriskuan dauden artean, hori guztiori, lan baldintza duinak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea bermatuko duten metodo eta praktiken bitartez.

**2. artikulua.-** Baldintza agiri honetan zerrendatutako zerbitzuak dira aurkeztu beharreko eskaintzaren oinarria, hau da, ezingo da bertan jasotzen dena baino eskaintza murritzagorik egin.

Hala ere, eskaintzailearen ustez baldintza agiri honetako baldintzak hobetzen dituen edozein aldaera aurkeztu ahal izango da.

**3. artikulua.-** Eskaintza aztertu ondoren eta txosten teknikoak ikusita, Udalak behin betiko esleituko ditu zerbitzuak edo eman gabetzat joko ditu argi eta garbi gelditzen baldin bada, baldintza agiri honen arabera, aurkeztutako eskaintzek ez dutela behar beste berme eskaintzen zerbitzua betetzeko edo udal aurrekontuan behar beste dirurik ez balego zerbitzu horiek ordaindu ahal izateko.

**4. artikulua.-** Esleipen eskaintzari dagokionez, Udalak egoki iritzitako aldaketak sartu ahal izango ditu, alde biek ados jarrita onartu beharko direnak.

## **II. KAPITULUA. EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN ZERRENDA**

**5. artikulua.-** Kale garbiketa zerbitzuaren barne egongo dira, bat bera ere kanpoan utzi gabe, ondoren zerrendatzen diren lanak:

- Kale-garbiketa.
- Udal parkeak eta lorategiak garbitzea.
- Isurbideak, sareak eta gainerakoak garbitzea.
- Euri uren kolektoreen eta kutxatilen garbiketa orokorra.
- Ur beltzen kolektoreen, kolektore mistoen eta kutxatilen garbiketa orokorra.
- Saneamendu sarean izan daitezkeen ezustekoei aurre egitea.
- Hondakin bilketa guneak garbitzea: zintzilikarioak eta edukiontziak.
- Zakarrontziak garbitu eta hustea.
- Olio eta koipe orbanak garbitzea ura presioan botata.

- Zuhaitzetako txorkoak garbitzea.
- Eskailerak, lur azpiko eta bide gaineko pasabideak, eraikin arteko plazatxoak, eraikinen atzealdeak eta abar garbitzea.
- Goratzak eta horrelako hondakinak garbitzea eta kentzea.
- Asteroko merkatu gunea garbitzea.
- Udal hilerria garbitzea.
- Noizbehinkako garbiketak (azokak, topaketak, jaiak, kultur eta kirol ekitaldiak eta abar). Markesinak, seinale bertikalak eta gainerako hiri altzariak garbitzea.
- Eskoletako jolastokiak garbitzea eta desinfektatzea. Aldizkako zerbitzuak edota ohiz kanpoko zerbitzuak:
  - . Elurteak eta izozte handiak.
  - . Hosto erorketa.
  - . Larrialdiak.
- Aurreko zerbitzuetan sortutako hondakinak garraiatzea eta deuseztatzea. Aukerako lanak.

### **III KAPITULUA. LANEN DESKRIBAPENA.**

**6. artikulua.-** Lehiaketa honen xede diren zerbitzu bakoitzeko garbiketa sistemak zehazten dira ondorengo artikuluetan, lehiaketara aurkeztuko diren enpresek eskaintza prestatzeko oinarria izan dezaten.

**7. artikulua.- 7.1.- Kale garbiketa:** Kale garbiketa honako hau izango da:

a) Espaloia edota errepideak esku-erratzez garbitzea:

Espaloia, pasealekuak, errepideak eta abar garbitzea izango da lan hau, langileek eskuilak, erratzak, esku-karroak eta abar erabiliz. Belarrak eta gainontzeko zikinkeria garbituko dira espaloietan eta, oro har, ertz eta bazterretan sortzen direnak.

Eskuz egindako garbiketatik sortutako hondakinak Udalak ezarritako irizpideen arabera batu eta jasoko dira. Esku-karroek poltsa eramango dute, husterakoan zikinik erori ez dadin kalera.

Lan horiek arreta bereziarekin egingo dira modu mekanikoan egiteko zailtasunak dauden oinezkoen guneetan eta ibilgailuentzako guneetan, sarbideak, maldak, egitura, lur zorua edo Udalaren iritzirako kontuan izan beharreko beste edozein arrazoi tekniko edo ekonomiko tarteko direla.

b) Espaloia edota errepideak mekanikoki erraztatzea.

Bideetan, espaloietan eta abarretan pilatutako zikinkeria eta hondakinak kentzeko mekanikoki egiten den lana da. Horretarako erratz mekanikoak, xurgapenez edo zakarra eramanez edo biak erabilita zikinkeria biltzen dutenak, hautsik ez harrotzeko hezette sistema automatikoa eta botatako airearentzako iragazkiak dituztenak erabiliko dira, eta maniobratzeko gaitasun handikoak izango dira.

Kontua handia jarriko da makinaria isila izan dadin eta bere ezaugarriengatik ingurumen eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

c) Erraztatze mistoa espaloietan eta errepideetan:

Lan honekin espaloia eta bideak garbitzen dira. Horretarako, haizea botatzen duen makina erabiltzen da espaloietatik bidera zikinka botatzeko eta une berean jaso erratz makinak. Horretarako bi langile joan behar dira, bata haizea botatzen duen makinarekin, eta bestea, erratz makinarekin.

**d) Espaloia eta errepideak erratzez eta urez edo urez garbitzea.**

Lan honekin espaloia, plazak, pasealekuak, bidea eta abar behar bezala garbitzen dira. Horretarako, behar besteko presioan ura botatzen da eta egoki garbitzeko beharrezko baliabideak erabiltzen dira.

Ura eskuz, mekanikoki edota modu bietara bota daiteke garbitu beharreko guneen baldintzen arabera.

Lan horrekin zikinka espaloia ertzetara botatzen da, erratzak pasatzerakoan jasotzeko.

Urez garbitzerakoan kontu handia jarri beharko da inguruetako lokaletara urik ez botatzeko. Horrelakorik gertatuko balitz, erantzukizuna esleipendunarena izango da. Horri dagokionez, udal zerbitzu teknikoek –leku bakoitzaren egoerarengatik- horrelako lanik egin behar ez den lekuen zerrenda emango diote esleipendunari.

Makinak urez betetzeko lanak Udalak izendatutako puntueta egingo dira.

**7.2.- Parkeen eta lorategien garbiketa:**

Zerbitzu honekin lorategietan, aisaldi gunetan eta parkeetan jendeak erabiltzen dituen pasealeku eta espaloietan erratza pasa beharko da, urez garbitu, eta lorategietako eta berdegunetako paperontziak hustu beharko dira. Maiztasuna horien inguruko bideek duten bera izango da.

**7.3.- Isurbideen eta kainu-zuloen garbiketa:**

Garbiketa mota hori eskuz edo mekanikoki egin ahal izango da, eta isurbideetan eta saretetan pilatutako hondakinak kentzea da, uneoro funtzionamendu egokiena izan dezan.

Garbiketa hori behar den guztietan egin beharko da, eta gutxienez, urtean bi aldiz.

Hostoak erortzen diren garaian izan ezik.

Meteorologia alerta abisuen aurrean arazoak ematen dituzten isurbideak aurrez garbituko dira, esleipendunaren erantzukizuna izanik lan horiek ez egiteagatik sor daitezkeen kalteak.

Isurbideak eta saretak garbitzean sortutako hondakinak atera bezain laster jasoko dira.

Zeregin horren berri emango zaie udaleko zerbitzu teknikoei, eta garbitutako inguruak zehaztuko dira; bestalde, gehien trabatzen diren zatiengatik, hondakin gehien metatzen diren inguruengatik, eraikuntza-akatsen eta abarren berri ere emango zaie.

**7.4.- Euri uren kolektoreen eta kutxatilen garbiketa orokorra.**

Euri uren kolektoreen eta kutxatilen garbiketa orokorrak herriko estolderi sare publikoaren garbiketa egiteko beharrezko diren ohiko lanak eta lan bereziak edo premiazkoak hartzen ditu; baita lanak egitea eta langileak, makineria eta beharrezko materiala jartzea ere

Beraz, eragiketa lan horiekin euri-urak jasotzeko kolektore sarea osatzen duten hodi eta eroanbide guztiak, ikus daitezkeenak eta ezkutukoak, eta kutxatilak garbituko dira, leudekeen hondakin guztiak bertatik jaso eta erretiratuz. Izaera pribatuko eroanbideen garbiketa ez dago barne.

Saneamendu sareko garbiketa lanetatik ateratako hondakin guztiak, dagokion hondakindegira eramango dira.

Garbiketa hori urtean behin egin beharko da.

#### **7.5.- Ur beltzen kolektoreen, kolektore mistoen eta kutxatilen garbiketa orokorra.**

Euri uren kolektoreen eta kutxatilen garbiketa orokorrerako esandako bera.

#### **7.6.- Saneamendu sarean izan daitezkeen ezustekoei aurre egitea.**

Saneamendu sare publikoan egon daitezkeen irregularutasunei kasu egin beharko zaie, horretarako, hilean, batez beste, 5 lanegunetan arituz, egon daitezkeen arazoak konponduz, eta kontuan hartuz zerbitzu hau urteko hamabi hilabetetan eman beharko dela, hau da, saneamendu taldea oporretan egon arren, lanean ari den plantillan norbait egon beharko dela zerbitzua emateko horren beharra izanez gero.

Sare pribatuetan egon daitezkeen arazoei dagokionez, 72 ordu baino lehen isurbide partikularrak garbitu eta trabak kentzeko konpromisoa hartuko du. Partikularrek ordainduko dituzte lan horien kostua ezarritako unitateko prezioen arabera.

Saneamendu zerbitzuan, orokorrean ulertuta, lanegunak falta badira zein soberan baldin badaude, dagokion erregularizazioa egin beharko da.

#### **7.7.- Hondakinak jasotzeo guneak garbitzea: zintzilikarioak eta edukiontzia.**

Zeregin honen baitan txertatzen dira hondakinak jasotzeo dauden eremu publikoak erratzez eta urez garbitzea nahiz bertan bildutako zaborra jasotzea, eta gune bakoitzeko errepideak garbitzen diren maiztasunarekin egin beharko da.

Astero egin beharko da garbiketa ura presioz erabiliz.

#### **7.8.- Paperontziak garbitu eta hustea.**

Paperontziak garbitzea: Zerbitzu honen barne daude paperontziak kanpotik zein barrutik garbitzea, horiek kentzea eta antzeko lanak. Zerbitzu hori emateko merkatuan dauden tresna edo baliabide eraginkorrenak erabili beharko dira. Gutxienezko maiztasuna: urtean behin.  
Paperontziak hustea: Eskoriatzako udalerrian jarrita dauden eta gerora jarriko diren paperontzi guztiak hustea izango da lan hau. Birziklatze paperontziak jarrita daude, eta beraz, bertako hondakinak gaika jaso beharko dira.

Garbiketa eskuz edo mekanikoki egiten duten lan taldeek egin beharreko lana da; hondakin eta zakar guztiak hustu beharko dira lan talde horiek gune horretan garbiketa egiten duten maiztasun berarekin. Ezingo dira errepidean hustu paperontziak eta hautsontziak, gero zakar horiek makinak jasotzeo.

#### **7.9.- Olio, koipe eta horrelako orbanak garbitzea:**

Udal zerbitzu teknikoek hala agintzen dutenean, bide publikoan gertatutako edozein istripuren edo

irregularitasunen ondorio izan daitezkeen olio, koipe eta antzeko orbanak garbitu beharko dira.

Lan hauek noizbehinka motordun ibilgailuak ibiltzen diren oinezkoen guneak, gurpildunentzako guneak, ibilgailuen aparkalekuak eta, nagusiki, taxien eta autobusen geralekuak nahiz, beharrezkoa balitz, beste puntu batzuk barne hartuko dituzte.

Garbiketa lan horietarako garbiketa produktu nahiz produktu kimiko egokiak erabiliko dira, eta ondoren presiozko ur zurrusta pasatuko da, erabat garbi gelditu arte.

Udal zerbitzu teknikoei emango zaie lan horren berri, zein gunetan lan egin den eta maiztasun gehien behar dutenak adieraziz.

#### **7.10.- Txorko irekiak eta itxiak garbitzea:**

Baldintza agiri honen eremu barruan dauden txorko guztiak garbituko dira, eta lan horretarako, erraztatzeko hainbat ekipo erabiliko dira. Txorkoak dauden bideak garbitzen diren maiztasun berarekin garbitu beharko dira horiek ere.

Erraztatzeko ekipo horien bidez txorkoen ahoetan bildutako hondakin guztiak garbituko dira.

#### **7.11.- Eskailerak, lur azpiko eta bide gaineko pasabideak, eraikin arteko plazatxoak, eraikinen atzealdeak eta abar garbitzea.**

Erabilera publikoa duten eskailera, lur azpiko eta bide gaineko pasabide eta eraikin arteko plazatxo guztiak garbitzeko eta desinfektatzeko lan egokiak egingo dira. Inguruko kaleak garbitzen diren maiztasun berarekin garbitu beharko dira. Lur azpiko pasabideak:

Intxaurtxueta.

Bidegorria.

Olazar kaleko 10, 11 eta 12 zenbakietan.

Hidalga kaleko 20 eta 22 zenbakietan.

Aranburuzabala kaleko 46, 48, 50, 52 eta 54 zenbakietan.

Antontxurako aldapan dauden saretak.

Gaztanaduiko arkupeak.

#### **7.12.- Goratzak eta antzeko hondakinak garbitzea eta kentzea.:**

Herri guztian zehar animalien gorozkiak eta antzeko hondakinak (gonbitoak, txikleak...) garbitu eta jaso beharko dira, guztiz kentzeko egin behar diren lanak eginez. Garbiketa lan horiek kalea bera garbitzen den maiztasun berarekin egingo dira.

#### **7.13.- Asteroko merkatu gunea garbitzea:**

Herrian ostiraletan egin ohi den azokaren gunea erraztatzea eta garbitzea da zerbitzu honen xedea; azoka-eguna ostirala den arren, hainbat arrazoirengatik, noizean behin asteko beste egun batean egin bidaiteke ere. Azoka egiten den gunea garbitzea: Fernando Eskoriatza plaza eta inguruak. Astero egin beharrekoa. Azoka amaitu eta berehala egingo da garbiketa.

#### **7.14.- Udal hilerra garbitzea:**

Kanposantuko kale, bide eta berdegune guztiei eragingo die garbiketak, baita horko sarbideei ere.

Lan horiek egiteko maiztasuna honako hau izango da:

- Garbiketa orokorra: hilean behin. Lirdinga ez ateratzeko produktu

- egokiak erabili ahal izango dira.
- Aste Santu aurretik eta Domu Santu eguna baino lehen kanposantu barrua, kanpoaldea eta inguru guztien aparteko garbiketa, urarekin presioz garbituz.

#### **7.15.- Noizbehinkako garbiketak (azokak, topaketak, jaiak, kultur eta kirol ekitaldiak eta abar).**

Herritarren jarduera arruntari dagokiona baino zikinka indize handiagoa duten guneen garbiketa hartzen du zerbitzu honek, honako hauen ondorioz:

- Herriko jaiak, auzoetakoak eta abar.Kaleko manifestazioak edo ekitaldiak.Hauteskunde kanpainak.Feriak, herri elkarretaratzeak, kirol eta kultur ekitaldiak.Herri kirolak.Beste ekitaldi batzuk.

Bereziki, eta esklusiboa izan gabe, ondorengo jai zerrenda:

- Herriko jaiak: San Pedro.Inauteriak: larunbata, asteartea (eguerdian), osteguna (eguerdia)Abenduak 25Urtarrilak 1Azokak: ekaineko lehen larunbata.Ekainak 24: San Juan Sua (garbiketa, ekainaren 25ean).Unibertsitateko jaia: maiatzean

Zerbitzu horiek eskaintzaren barne egongo dira, eta ez dira bereiz fakturatuko.

Bide publikoko inguru horiek garbituko dira, eta, herriko jaietan eguraldi txarra egingo balu, udal pilotalekua ere garbituko da, ekitaldi bakoitzaren ospakizuna amaitu bezain laster, edo hala dagokionean, beharren arabera eta jai-ekitaldiaren ordutegia kontuan hartuta. Aurrez eta nahiko denboraz zehaztuta dauden ekitaldietan, udaleko zerbitzu teknikoek adieraziko dute nola egin behar den garbiketa.

Ekitaldi horietako batzuek eskatzen duten lan bolumena kontuan hartuta, batez ere, herriko jaietan, baliabide eta material egokiak erabili beharko dira garbiketa lanak egiteko.**7.16.- Markesinak, seinaleztapen bertikalak eta gainerako hiri altzariak garbitzea.**Zerbitzu honetan sartzen dira markesinak kanpotik zein barrutik garbitzea eta seinaleztapen bertikalak eta hiri altzariak garbitzea. Pintadak, peginak, kartelak eta abar kendu beharko dira. Merkatuan dauden tresna edo baliabide eraginkorrenak erabili beharko dira zerbitzu hori emateko. Lan horretarako gutxieneko maiztasuna honako hau izan beharko da: Urtean 4 aldiz.

#### **7.17.- Eskoletako jolastokiak garbitzea eta desinfektatzea.**

Herriko ikastetxeetako jolastokiak eta inguruak, eskailerak eta pasabideak garbitu eta desinfektatu beharko dira.Desinfektazioa egiteko behar bezala erregistratutako desinfektante onenak eta eraginkorrenak erabiliko dira, eta produktua aplikatzerakoan beharrezko segurtasun neurriak hartuko dira.Jolastokiak garbitzeko maiztasuna:Luis Ezeiza Herri Eskola: egunero erratza pasa eta astelehenetan, lehenengo orduan, urez garbitu beharrezko dela ikusten den guztieta.Haur eskola eta haurtzaindegia (Kulunka): egunero erratza pasa. Urez garbitu beharrezko ikusten den guztieta, batez ere, astelehenetan.Desinfekzioa urtean behin egingo da.

#### **7.18.- Aldizkako zerbitzuak edota ohiz kanpoko zerbitzuak:**

Ez ohiko zerbitzu hauen berezitasuna urteko sasoia eta gorabehera bereziek emana dator, zaila da, beraz, urteko garbiketa plangintzaren egitarauan behar bezala sartzea; hori horrela, zerbitzuak une bakoitzean eskatzen dituen beharren arabera gauzatu beharko da lana.

Zerbitzu hori emateko orokorrean eskaini diren baliabideak erabili beharko dira, eta ahalegina egin beharko da gainontzeko zerbitzuek okerrerako eraginik izan ez dezaten.

Horiek burutzeko lehiakideak baliabide bereziak, eta eskaintza orokorretik kanpo geratzen direnak, erabili beharra ikusten baldin badu, bere eskaintzan zehaztu beharko ditu berariaz.

Honako zerbitzu hauek sartuko dira multzo horretan:

**a) Elurte edo izotz handiak direnean egin beharreko lanak:**

Elurte edo izozte handiak izanez gero, udal zerbitzu teknikoek ezarriko dituzte eman beharreko zerbitzuak, eremuak eta gainerako xehetasunak.

Oro har esanda, autoentzako bideetan, oinezkoentzako pasabideetan eta espaloietan bideak zabaltzea izango da, zintarrien ondotik ura joateko bideak irekitzea, elurra eta izotza urtzeko materiala zabaltzea eta abar.

Lan horiek udal teknikarien aginduen arabera egingo dira.

Kaleak garbitzeko makineria egokia izateko posibilitatea zehatztuko da (elurra kentzeko makina, 4x4 ibilgailua elurretarako tresneriarekin, gatza banatzekoa, palak eta abar) lan ordutegiak, langileen antolamendua eta abar.

**b) Hostoa erortzen den sasoiko garbiketa:**

Udazkenean eta beharrak hala eskatzen duenean bilduko dira hostoak, betiere, herrian pilatzen den hosto bolumenaren araberako giza baliabideak eta teknikoak erabiliz. Horretarako, zehatz-mehatz azaldu beharko dute lizitatzailleek zerbitzu edo lan horri eskainiko dizkioten baliabideak, lanorduak eta maiztasuna. Hostoak jasotzeko lanaz gain, indartu egin beharko da hustubide eta kainu-zuloen garbiketa lana, kontuan izan behar baita hondakin horiek izaten direla gehienetan zulo haien ixten dituztenak.

**c) Larrialdi edo aparteko beste edozein egoeratako jarduketa:**

Kontratuak barne hartzen duen esparruko eremuен garbitasunari modu larrian eragiten dion ezustekoren bat edo larrialdiren bat gertatuz gero, esleipendunak berehala erantzuteko betebeharra izango du, eta eragindako inguruak garbitu beharko ditu, Udalarekin koordinatuta eta hark gidatuta eta gainbegiratuta.

**7.19.- Aurreko zerbitzuetan sortutako hondakinak jasotzea, eramatea eta deuseztatzea.**

Aurreko zerbitzuak egiterakoan jasotzen den zabor guztia dagokion zabortegira eramango da, eta ordaindu beharreko kanona ere eskaintzan sartuta egongo da.

Debekatuta dago bide publikoan zaborrak ibilgailu batetik bestera aldatzea.

Bideak garbitzean sortutako hondakinak biltzeko eta jasotzeko sistemarik egokiena zehatztuko da eskaintzan, eta bidea ahalik eta gutxien kaltetuz egin beharko da garbiketa. Kokapena, ahalmena, metodoa, maiztasunak eta bilketaren ordutegiak ere zehatztuko dira.

**7.20.- Aukerako zerbitzuak**

- Hiri gune berriak garbitzea. Erdi gunearren garbiketa orokorra.  
Espaloia ur beroaz garbitzea.

Pintadak garbitzea eta kartelak kentzea.  
Graffitien aurkako tratamendua.

**8. artikulua.-** Zerbitzuak emateko orduak garbiketa lan ezberdinetan sortzen diren zarata mailen arabera egokitu beharko dira, eta baita hiriaren berezitasunen, trafikoaren eta oinezkoen intentsitatearen arabera ere.

Lehiatzaileek ordu proposamenen bat egingo dute aurreko baldintzei eta proposatutako bilketa sistemei egokituta. Jaiegunetan arreta berezia izango da lana hasterakoan eta, zaratak direla medio, bizilagunei eragin dakizkieken eragozpenengatik.

Kutsadura akustikoa eta ingurumenaren kutsadura ahal beste saihesteko baliabide mekaniko egokienak aztertuko dira. Alde horretatik, erabiliko diren makinak, sortuko diren zarata mailak, erregai edo energia mota, kontsumoa, CO<sub>2</sub> igorpenak eta abar zehaztuko dira.

Bereziki, Luis Ezeiza ikastetxerako eta Jose Arana ikastolarako sarbideak garbituta egon beharko dira gutxienez eskolaumeek eskolan sartzeko ordua baino ordu erdi lehenago.

#### **IV. KAPITULUA.- LANGILEAK, MATERIALA ETA INSTALAZIO FINKOAK**

##### **1. atala.- LANGILEAK**

**9.- artikulua.-** Zerbitzuaren kudeaketa eraginkortasunez ustiatzeko beharrezko langileak izango ditu uneoro esleipendunak, baldintza agiri honetan jasotako zehaztasunekin bat etorrita.

Zerbitzua modu egokian ematen dela eta agindutako lanak ondo betetzen direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten langileen aurreikuspenaren proposamen zehaztua egingo dute lehiatzaileek, baldintza agiri honetan jasotako gutxienekoak kontuan hartuta betiere; gerta daitezkeen gorabeherak ere kontuan hartu beharko dituzte (premiazko lanak, gaixotasun edo istripuen ondoriozko bajak, oporrak eta abar).

Lehiaketa honi dagokion zerbitzua bere gain hartzen duen momentuan, ordura arte zerbitzuari atxikitako langileak bere gain hartu beharko ditu esleipendunak, I eranskinean agertzen den zerrenda, alegia, hori guztiori lan-eskubide eta gainontzeko eskubide guztiak errespetatuz, eta betiere, gaur egun duten lan-harremanaren arabera.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, eta kontratua hasi deneko plantillan aldaketaren bat izango balitz -erretiroa dela, heriotza, borondatezko baja, kalera bidaltzea, betirako elbarritasuna, edo beste arrazoiren bat dela- edo zerbitzurako beharrek hala eskatuta aldaketarik izango balitz, esleipenduna behartuta dago lanpostuetan sor daitezkeen aldaketak betetzerakoan aldez aurretik Alkate-Udalburuari edo horren ordezkoari horien berri ematera.

**10. artikulua.-** Behar adinako gaitasuna duen pertsona bat egongo da enpresa ordezkari eta kontratatutako zerbitzu guztien arduradun lanetarako; pertsona horrek izango du hartu-eman zuzena udaleko zerbitzu teknikoekin, eta zerbitzua egiterakoan aurkitzen dituen gorabehera guztien berri emango die haiei, eta baita zerbitzua hobeto arrazionalizatzeko eta eraginkortasun hobea izateko iradokizunak ere. Era berean, bide publikoetan, kaleko tresnerian eta abarretan ikusten den edozein gorabeheraren berri emango du.

**11. artikulua.-** Lehiatzaileek euren eskaintzetan adierazi beharko dute zein irizpide erabiliko duten langile berriak kontrataterakoan. Era berean, langileekiko zein politika eramango duten proposatu

beharko dute lehiatzaileek; bereziki, langileen prestakuntza, segurtasuna eta higienea eta beharrezko mediku zerbitzuei dagokionez.

**12. artikulua.-** Esleipendunak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu langile guztiak, eta erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu egin beharreko lanetan langileek hirugarrenetik eragin dakizkiekeen kalte-galerak estaltzeko.

Zerbitzuaren segurtasunari begira, langile guztiak behar bezala identifikatuta egon beharko dira, eta lehiatzaileek beraiek proposatu beharko dute beraien iritziz egokienna izan daitekeen identifikazio sistema.

**13. artikulua.-** Zerbitzuetako langile guztiak uniformea jantzita lan egin beharko dute. Uniformea ezberdina izango da udaran eta neguan, eta Udalak onartu beharko du.

Lan hitzarmen kolektiboetan adostutakoak arautuko du langileentzako jantziak kantitatea nahiz kalitatea; hala ere, urtean gutxienez bi jantzi izango dituzte, bat uda garaikoa eta beste bat negukoak.

Lehiatzaile bakoitzak jantziak zerrenda zehatza azaldu beharko du, eta era berean, langile bakoitzak erabiliko duen tresneri osagarria, bakoitzaren urteko kostua adieraziz.

Esleipendunaren ardurapean geldituko da langileen garbitasuna eza, apaingarritasun eza, jantziak uniformetasun falta edo langileek herritarrekiko izan dezaketen jokabide eskasa, eta baita zerbitzuak ematerakoan zarata gehiegi ateratzea ere.

## 2. atala.- MATERIALA

**14.artikulua.-** Enpresa lehiatzaileek kontratuko zereginak eta zerbitzuak modu egokienean garatzeko beharrezko baliabideak eskainiko dituzte. Baliabide horiek egokiak izan behar dira kopuru eta ezaugarri aldetik.

**15. artikulua.-** Zerbitzu ezberdinietan erabili beharreko material mugikorra zehaztuko dute lehiakideek, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zerbitzua zuzen-zuzen eskaintzeko beharrezko materiala zein den, eta zein erreserbakoa, hau da, normalean zerbitzuan egongo ez dena, baina, egunero zerbitzuan dagoena matxuratuz gero horren ordez jarriko dena, edo kasu jakinetan hura indartzeko erabiliko dena.

Zerbitzuak eskaintzeko beharrezko materiala izan beharko du uneoro enpresa esleipendunak, eta matxuraren bat edo beste edozein gauza gertatuz gero, matxura gertatu den unetik gehienez ere 24 orduko epea izango du makineria berriro martxan jartzeko. Zerbitzua murriztea suposatzen duten matxurak gertatuz gero, Udaleko Zerbitzu Teknikoak jakinaren gainean jarri beharko dira ahal bezain laster.

Zerbitzua emateko beharrezko ibilgailuak, makinak, material higikorra eta gainerako materiala bete beharko dituzten funtzioen arabera hautatuko dira, eta honako hauek ere kontuan hartuko dira horiek aukeratzerakoan: kaleen zabalera, maldak eta material hori erabiliko den inguruuen ezaugarriak. Sotoen, garajeen eta antzekoen gainean kokatutako plazetan eta erabilera publikoko espazioetan, inguru horiek onartzen duten gainkarga eta erabiliko diren makinak pisua hartu beharko dira kontuan.

Makineria zerbitzura atxikita egon beharko da, eguneroko eta beharrezko erabilerarako.

Erabiliko diren baliabide guztiak homologazio ziurtagiriak izango dituzte, eta komunikazio ekipoak ere bai. Ekipo horiek zentral batera lotuta egon beharko dira eta jardueraren eremu geografikoa osoa hartu beharko dute.

Baliabide guztiak egoera onean egon beharko dira beti, eta sistemek edo gailuek ez dute hondatuta edo kaltetuta egon behar, hau da, erabilgarri egon beharko dira.

Kontsumo eta isurpen aldetik, ahalik eta eraginkorrenak izan beharko dira. Ibilgailuek ahalik eta gehien murriztuko dute ingurumen eragina: ibilgailu berrieik indarrean dagoen EURO estandarra bete beharko dute, eta CO<sub>2</sub> isurpenak ere ahalik eta txikiak izango dira, zerbitzua murriztu gabe.

**16. artikulua.-** Bide publikoan lan egiten duten ibilgailu guztiak ongi ikusteko modukoak izango dira eta gidariarekin batera lan egiten duten langileentzako nahitaez behar diren segurtasun-sistemak izango dituzte.

Bide publikoan lan egiten duten ibilgailuek behar bezalako seinalizazio tresnak eduki beharko dituzte, ondo ikus daitezen eta oinezkoak eta gainerako ibilgailuek arriskurik izan ez dezaten.

Ibilgailuetako pintura eta errrotulazioa Udalak baimendutakoa izango da bakar bakarrik.

**17. artikulua.-** Eskainitako material guztia zehatz-mehatz deskribatu beharko da, eta planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta material horiek ahalik eta ondoen ezagutu ahal izateko behar diren datu guztiak aurkeztuko dituzte lehiakideek.

**18.- artikulua.-** Industria eta Energiaren Zuzendaritzak aldiro egiten duen ikuskapena pasa behar duten ibilgailu automobil guztiak, arinak nahiz erdi mailako pisukoak nahiz astunak, indarrean dagoen araudiaren arabera egin beharko dute.

**19. artikulua.-** Kontratuan barne hartutako materiala kontratatzen diren zerbitzuetarako erabili ahal izango da soilik, eta ezingo da erabili kontzesioarekin loturarik ez duten zerbitzuetarako, Udalak berariaz agintzen ez badio edo onartzen ez badu behintzat.

**20. artikulua.-** Udalak ulertuko du eskaintzan proposatutako materiala eta makinak zerbitzua betetzeko nahikoa direla lehiatzailearen ustez; hala ez balitz, esleipendunak zerbitzua emateko beharrezko materiala erosi beharko du bere gain eta kontura.

### 3. atala.- INSTALAZIO FINKOAK

**21. artikulua.-** Lehiatzaileek instalazio propioak edo alokatutakoak izan behar dituzte, eta instalazio horiek zerbitzua emateko ibilgailuak eta makineria gordetzeko nahikoa leku izan behar dute; halaber, instalazioetan oinarritzko mantentze-lanak eta konponketa txikiak egiteko aukera izango da, eta langileen aldagelak eta materialen biltegia hartzeko nahikoa toki izan behar dute. Instalazio horiek Udal baimena izan behar dute derrigorrez, kontratua sinatu eta bi hilabete igaro baino lehen.

Udalak ez du inolako konpromisorik izango esleipendunak lan emakida honek dirauen bitartean erabiltzen dituen lokalekiko, ezta emakida hautsi edo indarra galtzen baldin badu ere; udal lokalak hortik salbu geldituko dira.

Esleipendunaren betebeharra izango da instalazio finkoak osatzen duten elementu guztiak garbi eta egoera onean zaintzea.

## **V. KAPITULUA.- LANEN ANTOLAMENDUA ETA KONTROL SISTEMAK**

**22. artikulua.**- Zerbitzuaren antolamenduaren azterketa osoa eta zehatza aurkeztuko da, eta honako hauek zehaztuko dira eman beharreko zerbitzu guztieta: proposatutako ekipoa, ekipo bakoitzari esleitutako zereginak, baliabide materialak, ibilbidea, ordutegiak, maiztasunak, kontrol-sistemak eta abar.

**23. artikulua.**- Enpresa esleipendunak urtero aztertu beharko ditu egitea komeni zaizkion aldaketak, eta aldaketa horiek jasoko dituen plan berria aurkeztu beharko dio Udalerri, onar dezan.

**24. artikulua.**- Kontratatzenten diren zerbitzuak udal administrazioaren ikuskaritzapean egongo dira etengabe, eta Udalak nonahi eta noiznahi egin ahal izango ditu pertsonal nahiz material ikuskapenak. Administrazioak agintzen duen ikuskapena zerbitzuaren lokal eta bulegoetara sartu ahal izango da, eta antolamenduari buruz eskatutako datu guztiak eman beharko zaizkio. Hilean behin, enpresaren ordezkari eta kontratatuako zerbitzuaren arduradun zuzena udal arduradunekin bilduko da, hilabete horretan egindako jarduketak zehaztuta jasoko dituen txostena aurkezteko; jarduketa horiek kontratuaren aurreikusitako jarduketekin bat datozen aztertuko dute, eta baita zer desbideratze gertatu diren eta desbideratze horien arrazoia eta justifikazioa ere, halakorik balego. Txostena ondo dokumentatuta egongo da, eta egindako zeregin guztiak argi eta zehatz jaso beharko ditu (jarduketak, azalpen teknikoak, argazkiak, hautemandako gorabeherak, konponketak eta abar).

## **VI. KAPITULUA.- KLASIFIKAZIOA ETA GARBIKETA MAILAK**

**25. artikulua.**- Kontratu honen xede diren bide eta gune publiko bakoitzerako garbiketa maila ezberdinak ezartzen dira, hain zuzen ere dokumentu honen III. eranskinean zehazten direnak. **26. artikulua.**- Udalerria zonaka banatzeaz gain, egunero garbitu beharreko lehentasun puntuak izango dira honako hauek:

- Haurrentzako parkeak. Hondakinak biltzeko puntuak.

**27. artikulua.**- Ulertu beharko da eskaintako prezioan sartzen direla ere zenbait areatan gehitu daitezkeen gune urbanizatuak, eta beraz, ez da kontratuko prezio igoerarik onartuko arrazoi horrentatik.

## **I ERANSKINA**

Maila	Antzinatas	Lanaldiaren portzentaia	Aplikatu beharreko lan-hitzarmena
PEOIA	2010/06/02	%42,50	GIPUZKOAKO GARBIKETA PUBLIKOAREN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKTAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA
PEOI MAKINISTA	2011/12/16	%100,00	GIPUZKOAKO GARBIKETA PUBLIKOAREN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKTAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA
PEOIA	2004/04/26	%15,00	GIPUZKOAKO GARBIKETA PUBLIKOAREN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKTAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA
PEOIA	2003/11/05	%100,00	GIPUZKOAKO GARBIKETA PUBLIKOAREN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKTAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA

**II ERANSKINA**. maila: Alde zaharra: Astean 7 egunetan:  
San Juan Kalea

Herriko Plaza Fernando Eskoriatza Plaza  
Hidalga Kalea  
Jose Arana Kaleall. maila: Txandaka, 4 egun astean:  
Aranburuzabala Kalea  
Aingeru Guarda Pasealekua  
Olaeta Plaza  
Dorleta Auzoa  
Plaza Gernika  
Santa Marina Plaza  
Arbiñoste kaleall. maila: Txandaka, 4 egun astean:  
Intxaurtxueta Auzoa  
San Pedro Auzoa  
Gaztañadui Kalea  
Santa Ana Auzoa  
Olazar Kalea Auzoa  
Eduardo Gorosarri Plaza  
Eskolak: Bereiziki Kulunka eta Luis Ezeiza patioa astelehenetan IV. maila: Astean behin  
Kuatruena Auzoa  
Estación y aparcamiento  
Elorreta Auzoa.  
Torrebaso Pasealekua  
Aparcamiento Zaldibar  
San Pedro parkea, bidegorria eta elizate-guneak: 15ean behin. Bidegorrieta espaloia eta saretak ere garbituko dira. Paper-ontziak hustu.

### **Bideak urez garbitzea mekanikoki**

Aho orientagarridun ibilgailuak erabiliz ura presioan botata garbitzea bideak, bereziki zintarrien inguruetañ. Zintarrietara eramandako zikinka ondoren batuko dira erratza pasatakoan.

- I Maila: Azarotik apirilera. Hamabostero.  
Maiatzetik Urrira: Astero
- II Maila: Azarotik apirilera. Hilabetero.  
Maiatzetik Urrira: Hamabostero
- III Maila: Azarotik apirilera. Hilabetero.  
Maiatzetik Urrira: Hamabostero
- IV Maila: Urte guztian hilabetero

**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE HA DE REGIR EL CONCURSO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES) y el fomento de empleo entre la población parada o en riesgo de exclusión social, todo ello bajo métodos y prácticas que garanticen unas condiciones laborales dignas y promuevan la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres en el ámbito territorial de Eskoriatza .**

## **CAPÍTULO I.– OBJETO DEL CONCURSO**

**Artículo 1.-** El presente Pliego forma parte de la documentación del Concurso para la adjudicación del **SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES)** y el fomento de empleo entre la población parada o en riesgo de exclusión social, todo ello **bajo métodos y prácticas que garanticen unas condiciones laborales dignas y promuevan la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres** en el ámbito territorial de Eskoriatza.

**Artículo 2.-** El conjunto de los servicios que se relacionan en este Pliego constituyen la base de la oferta a presentar, bien entendido que no podrán hacerse ofertas más reducidas que lo comprendido en el mismo.

No obstante, podrán ofertarse cualquier tipo de variantes, que a juicio del ofertante, mejore las condiciones que abarcan este Pliego.

**Artículo 3.-** Una vez estudiadas las ofertas y a la vista de los informes técnicos, el Ayuntamiento procederá a la adjudicación definitiva de los servicios o a declararlo desierto si quedara patente, con arreglo a este Pliego, la inexistencia de garantías suficientes por parte de las ofertas presentadas para su cumplimiento, o hubiese una incapacidad económica en el presupuesto municipal para poder acometer el pago de dichos servicios.

**Artículo 4.-** Sobre la oferta de adjudicación, podrá el Ayuntamiento introducir las modificaciones que considere oportunas, las cuales deberán ser admitidas, de mutuo acuerdo, por ambas partes.

## **CAPÍTULO II. – RELACIÓN DE SERVICIOS A PRESTAR**

**Artículo 5.-** El servicio de limpieza viaria comprenderá, sin exclusión, los trabajos que a continuación se enumeran:

- Limpieza viaria.
- Limpieza de parques y zonas ajardinadas municipales.
- Limpieza de sumideros, rejillas y demás.
- Limpieza general de colectores pluviales y arquetas
- Limpieza general de colectores de fecales y mixtos y arquetas
- Atención de imprevistos en la red de saneamiento
- Limpieza de zonas de recogida de residuos: colgadores y contenedores.

- Limpieza y vaciado de papeleras.
- Limpieza de manchas de aceite, grasa, etc. con agua a presión.
- Limpieza de los alcorques de los árboles.
- Limpieza de escaleras, pasos subterráneos y aéreos, plazoletas interiores, traseras de edificios y etc.
- Limpieza y retirada de excrementos y otros residuos asimilados.
- Limpieza del mercado semanal.
- Limpieza del cementerio municipal.
